SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

# Soziolinguistika albistaria

119. zenbakia
2022ko martxoak 25 – apirilak 7

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

### Lan eskaintza: ikertzaile/teknikaria

Soziolinguistika Klusterra ikerguneak pertsona bat behar du bere lan taldea osatzeko, urtebeterako eta jarraitzeko aukerarekin.

### 2021 Urteko Txostena argitaratu da

Urtero bezala Soziolinguistika Klusterrak egindakoaren laburpen bat biltzen duen txostena argitaratu da: 2021 Urteko Txostena. Erakundearen barne-bizitza, proiektuetan landutakoa eta kanpo-harremanak laburbiltzen dira txostenean, urtearen ikuspegi osoa eskainiz.

### Errenteriako hizkuntza aniztasunaren mapa argitaratu da

Errenteriako Udalak, hizkuntza aniztasuna herriko aberastasuna dela jakinik, herrian hizkuntza horiek nola hedatzen diren jakiteko, herriko hizkuntza aniztasunaren mapa osatzea erabaki zuen 2021ean. Eta hori egiteko Sozioinguistika Klusterrari eskatu zion laguntza.

### Euskara Legutioko Moldera ikerketa-proiektuaren emaitzak aurkeztu dira

Gazteen eta guraso berrien hizkuntz praktika, ideia eta bizipenei buruzko ikerketa-proiektua egin dute lankidetzan Soziolinguistika Klusterrak eta EHUk. Hiru helburuari erantzuten die ikerketak: hizkuntza praktikak, ideologiak eta bizipenak aztertzea, hizkuntza-sareak aztertzea eta etorkizuneko esku-hartzeetako gako baliagarriak lortzea.

# Ikerketak

## EUSKAL NORTASUNA(K) XXI. MENDERA BEGIRA ikerketa proiektua: doktoregai eta ikertzaile gazteen bila

[Eusko Ikaskuntza] Datozen bi urteetan garatuko den proiektuak unibertsitateko masterdunak/doktoregaiak bilatzen ditu Garapen Taldea osatzeko. Euskal lurraldeen kohesioa eta elkartasuna sustatzen eta aurrera egiten jarraitzea du helburu.

## Eremu digitalean euskarak duen egoeraren gaineko txostena (ELE proiektua)

[ELE proiektua] This report on the Basque language aims to describe the current state of affairs and additionally identify the gaps and factors that hinder further development in research and technology.

## BEHA Ikerketa Proiektuak bidearen erdia egin du dagoeneko

[Euskal Hedabideen Behategia] Euskal Hedabideen Behategiak eta Euroeskualdeak bultzatutako BEHA ikerketa proiektuaren erdibideko emaitzak partekatu ditugu, lehen faseko partaideekin batera, Martin Ugalde Kultur Parkean egindako lan-saioan.

## Informe sobre el estado de las lenguas en internet

[Internet languages] Internet y sus diferentes espacios digitales constituyen una de las infraestructuras de conocimiento, comunicación y acción más importantes de la actualidad. Sin embargo, con más de 7000 lenguas en el mundo, ¿cuántas de ellas podemos disfrutar en la web?

# Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

## Webinar - 50 anni di multilinguismo in Alto Adige: a che punto siamo?

[EURAC] Our research addresses the greatest challenges facing us in the future: people need health, energy, well-functioning political and social systems and an intact environment. These are complex questions, and we are seeking the answers.

# Liburuak eta artikulu zientifikoak

## Learning languages in a globalized world : understanding young multilinguals' practices in the Basque Country

[Journal of Multilingual and Multicultural Development] In the present study, we have explored language learning motivation, attitudes and exposition strategies in participants' L2 and FL in an attempt to adopt a multilingual view that better suits the complex sociolinguistic context of the Basque Country.

## Mintza gaitezen hizkuntza zapalkuntzaz

[ARGIA] Sare sozialetan zalaparta sortu da, txisteak egin dira, epailearen iraganeko epaiak aztertu dira, hizkuntzalariek erakutsi dute ez duela ez hanka ez bururik eta euskalgintza mobilizatu da. Bataila ideologikoak jarraitzen du, ordea, eta euskararen aurkako diskurtsoak etengabe berritzen dira.

## School inclusion, young migrants and language. Success and obstacles in mainstream learning in France and New Zealand

[Journal of Multilingual and Multicultural Development] Inclusive schooling practices that support immigrant students with low language-of-schooling proficiency to actively participate in learning within mainstream contexts is crucial during the newly-arrived phase.

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean HABE Liburutegira (liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

# Bestelako albisteak

## Mihiaz gain, badago zer astindu

[BERRIA] Euskararen erabilera geldialdian dagoela erakutsi dute azken ikerketek. Mezu orokor eta negatiboak hiztunengan zamatu beharrean arrazoietan arakatu behar dela uste dute adituek: inguruneak ezartzen dituen baldintzetan, arau sozialetan, emozioetan eta identitatean, besteak beste.

## Galera demografikoa eta zonifikazioa, euskararentzat mehatxu Pirinioetan

[BERRIA] Landa eremuaren hustea eta zonifikazioa, biak gurutzatzen dira Nafarroako Pirinioetan. Han ibili da Korrika, Euskararen Legeak ezartzen dituen muga ikusezinak gainditzu. Idoia Zabalza euskara teknikariaren esanetan, inguru horren euskalduntzean zuzeneko eragina dute hala Euskararen Legeak nola «sozialki» oso desberdinak izateak.

## Ahalduntze ariketa indigena bat

[BERRIA] Garabidek antolatuta, hizkuntza gutxituak biziberritzeko Hibil ikastaldia egiten ari dira hamabi komunitate linguistikotako ordezkariak Euskal Herrian. Esperientziak, kezkak eta gogoetak partekatu dituzte, eta euren hizkuntzak biziz berritzeko tresna egokiez jabetu dira.

## Euskararen aldeko lanean segitzeko konpromisoa berretsi du Fagor Taldeak

[FAGOR] "Eragile sozioekonomiko gara. Gizartearekiko konpromisoak eraginda sortu ginen. Eta halaxe dihardugu. Erronkak, potoloak dira, bai. Baina, pozik gaude egiten gabiltzan bidearekin. Gaurko aitortzak, bidean segitzeko indarra ematen digu".

## A New Center Could Help Save Native Languages From Extinction

[Honolulu Civil Beat] Native languages are disappearing in the U.S. and beyond. Hawaii's efforts to promote the Hawaiian language could serve as a model elsewhere.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

**Babeslea:**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**Bazkide partaidea:**

emun
Euskara eta berrikuntza soziala